



Eguraldiak ez zuen meilarik egin Leitzako lhoteetako atxoengan

IGANDEA ▶ Mozorroak eta gurdiak izan ziren jaietako protagonistak herenegun kalean

ESKEA ▶ Atzo eskean aritu ziren baserriz baserri, auzoetan banatuta; gaur amaituko dira ▶ 5



Leiza square garden prestatu zuten igandean lhoteen barruan; atzo ere giro ederra izan zuten eta gaur jarraituko dute festa. JAIONE ASTIBIA

TOLOSA ▶

560 gazte korrika Ero-Etxeren krosean

Anoeta eta Laskorain ikastolek irabazi zuten taldeka ▶ 2

ANOETA-IRURA ▶

Kaldereroak ostiralean iritsiko dira bi herrietara

Gaur azken entsegua dute Anoetako ikastolan ▶ 4



Euskal produktuak
gure sukaldean

Urtarrilaren **23tik** aurrera
egunero fitxa bat **DOAN BERRIAREKIN**



Jantzi mantala eta hasi sukaldean!

50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubal jatetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jatetxea, Argomaniz Paradore, Borda Berri jatetxea, Currito jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portalón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martinez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea...

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

ERO-ETXE ELKARTEAREN KROSA ▶

560 korrikalari gazte, herriko kale bustietan

Ero-Etxe elkartearen krosean Anoetako Herri Ikastola izan da garaile mutiletan; nesketan, berriz, Laskorain ikastola



Ero-Etxe elkarteak antolatutako kroseko irabazleak, herenegun, podium gainean, sariak jaso ostean. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Urtero bezala, partaidetza handia izan du Ero-Etxe elkarteak antolatutako krosak: guztira, eskualdeko eta kanpoko ikastetxeetako 560 neska-mutil aritu ziren igande goizean kaleetan zehar lasterka. Errepideak bustita zirenez, nahiko lan izan zuten korrikalari gaztetxoek mailaren arabera zegokien ibilbidea egiteko; hala eta guztiz ere, ondo baino hobeto osatu zuten gehienek irteera gunetik helmugarainoko bidea.

Benjamin, alebin eta infantil mailakoak lehiatu ziren ohiko legez, eta maila bakoitzetik helmugara iritsi ziren lehen hirurek jaso zuten epaimahaiaren

saria: garaikurrak, txapelak, opariak... Banakako lana ez ezik, taldekakoa ere neurtu zuten antolatzaileek, hala ere, marka onenak egin zituzten korrikalarien arabera puntuak banatuz. Mutiletan Anoetako Herri Ikastola irabazi zuen benjamin mailan, eta Samaniego-Orixek eta Urdanetak alebinetan eta infantiletan, hurrenez hurren. Nesketan, aldiz, Urdaneta ikastetxeok gailendu ziren benjamin eta alebin mailetan, eta Laskorain ikastolako alebinetan.

Sailkapen orokorrari dagokionean, mutiletan Anoetako Herri Ikastolakoak jaso zuten lehenengo saria. Hirukide eta Samaniego-Orixek ikastetxeen

aurretik: 380, 300 eta 260 punturekin. Eta nesketan, Laskorain ikastolakoek lortu zuten lehen sailkatzea 560 punturekin, Urdanetakokoak eta Samaniego-Orixekoak, 440 eta 240 punturekin, atzetik zituztela.

Parte-hartzaile batzuk zioten lasterketa «gogorra» izan zela, baina helmugara «nekatu ere egin gabe» heldu zenik ere bazen. Antolatzaileak ere gustura dira aurtengo edizioak emandakoarekin. Izan ere, laguntzaile asko izan zituzten herenegun korrikalarietara egin beharreko ibilbidea adierazteko. Gauza bakarra aldatuko omen lukete partaideek eta sustatzaileek: indargabe eta tarteka egindako «ziri-miria eta hotza».

SAILKAPENA ▶

BANAKA

Benjaminak.

Mutilak	
1. Alexander Irurzun (Anoetako Herri Ikastola)	4.06
2. Iosu Ibarbia (Ibarrako Uzturpe ikastola)	4.08
3. Kepa Eizagirre (Anoetako Herri Ikastola)	4.10
4. Mikel Mabinea (Berastegiko Muñagorri)	4.21
5. Unai Ibarzabal (Anoetako Herri Ikastola)	4.25

Neskak

1. Ylenia Morales (Urdaneta)	2.07
2. Ane Calvo (Urdaneta)	2.07
3. Maria Ibañez (Urdaneta)	2.07
4. Jone Gomez (Laskorain ikastola)	2.08
5. Mirreia Lakuntza (Laskorain ikastola)	2.11

Alebinak.

Mutilak	
1. Unai Arroyo (Samaniego-Orixek)	7.15
2. Ander Ortiz (Anoetako Herri Ikastola)	7.17
3. Mikel Zabala (Hirukide)	7.28
4. Julen Pagola (Ibarrako Uzturpe ikastola)	7.31
5. Urko Arizeta (Laskorain ikastola)	7.33

Neskak

1. Estibaliz Lozano (Urdaneta)	5.33
2. Maddi Garikano (Laskorain ikastola)	5.37
3. Lucia Zumeta (Hirukide)	5.38
4. Sara Insausti (Urdaneta)	5.39
5. Julisa Perez (Laskorain ikastola)	5.48

Infantilak.

Mutilak	
1. Jon Zabalegi	10.08

(Urdaneta)

2. Jon Etxaide (Hirukide)	10.13
3. Eñaut Perez (Urdaneta)	10.17
4. Ander Lesaka (Santamaria-Portugalet)	10.27
5. Aitor Aldalur (Laskorain ikastola)	10.29

Neskak

1. Lierni Gartziaena (Samaniego-Orixek)	8.20
2. Ane Urkizu (Samaniego-Orixek)	8.25
3. Inmaira Artieda (Anoetako Herri Ikastola)	8.26
4. Garazi Egiguren (Laskorain ikastola)	8.35
5. Olatz Artola (Laskorain ikastola)	8.47

TALDEKA

Benjaminak.

Mutilak	
1. Anoetako Herri Ikastola	290
2. Ibarrako Uzturpe ikastola	120
3. Berastegiko Muñagorri	70
Neskak	
1. Urdaneta	270
2. Laskorain ikastola	130
3. Ibarrako Uzturpe ikastola	60

Alebinak.

Mutilak	
1. Samaniego-Orixek	150
2. Hirukide	110
3. Anoetako Herri Ikastola	90
Neskak	
1. Urdaneta	170
2. Laskorain ikastola	150
3. Hirukide	130

Infantilak.

Mutilak	
1. Urdaneta	180
2. Hirukide	140
3. Samaniego-Orixek	90
Neskak	
1. Laskorain ikastola	280
2. Samaniego-Orixek	190
3. Anoetako Herri Ikastola	80

* Taldekako emaitzak puntuka daude

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 60 m2. Logela, egongela, sukaldea, bainugela.
Berokuntzarekin. 192.325 euro.

Anoeta. Iturburu. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela.
Berokuntzarekin.

Asteasu. Eraikuntza berriko ebea salgai. Lau solairurekin, lorategia eta terraza. Oso egoera onean.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garajearekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran garaje itxia salgai.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. 270.455 euro.

Ikaztegieta. Sei etxe atxikiaren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!

Legorreta. 70 m2-ko etxebizitza, berokuntzarekin. 142.440 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. Amaroz auzoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Belate. Hiru logela eta bi bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (1 bulego bezala egokitua). Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Lurre inguruan guztiz berritutako bi logelako etxebizitza.

Tolosa. Lurre. Hiru logelako pisua, ganbara eta garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. Bi logela, sukaldea, egongela eta trasteleku. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Santa Klara auzoan, lau logelako etxebizitza. Berokuntzarekin. Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Trinkete. Hiru logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. San Frantzisko ibiltokian 46 m2-ko lokal komertziala.

Villabona. Ebeondo. Pisua ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Larrea auzoan eraikuntza berriko etxebizitza saltzen da. Eguzkitua.

Zizurkil. Pisu altua igogailu eta berokuntzarekin.

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

1. Maila A.
Atenea-Ibarra 6-2

1. Maila B.
Laskorain-Beti Arin 11-4

Liga Autonomikoa.
Pasaia-Transp.Lakuntza 4-3

Nesken Liga.
Goierri-Tinta Villabona 2-4
Laskorain-Goierri UPV 1-4

Jubenilen Maila.
Lauburu-Berriotoxa 11-7

ESKU PILOTA

EUSKAL HERRIKO
ELKARTEEN ARTEKO
TXAPELKETA

Gazteak.
Latasa-Aurrera Saiaz 22-14
(Koldo Galarraga)

22 urte azpikoak.
Aurrera Saiaz-Paz de Ziganda 22-21
(Imanol Pastrain)
Aurrera Saiaz2-Aurrera Saiaz1 18-22
(Unai Aspe-Eneko Galarraga /
Ugaitz Renobales-Julen Mujika)

GARZIANDIA
LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Elizondo-Irurita /
Etxeberria I.a-Arrieta 07-22
Alzugarai-Mitxeko /
Bengoetxea-Ontxalo 19-22
Zabala-Jauregi /
Mikelperizena-Zubieta 06-22

UDABERRI TXAPELKETA

Kadeteen 3. maila.
Aurrera Saiaz-Oiarpe 22-13
(Mikel Lasa-Marco Montiel)

Jubenilen 1. maila.
Añorga-Aurrera Saiaz 07-22
(Axier Telleria-Joseba Senperena)

Jubenilen 2. maila.
Tartaloetxe-Aurrera Saiaz 22-20
(Beñat Iriarte-Axier Telletxea)

Nagusiak.
Aurrera Saiaz-Altzatarra 13-22
(Xuban Pikabea-Garikoitz Galarraga)
Lazkao-Behar Zana 19-22

FUTBOLA

Gorengo Maila.
Tolosa-Zestoa 2-0
Saillkapena ▶

1. UPV/EHU	42 puntu
2. Tolosa	42 puntu
3. Ordizia	38 puntu
4. Zarautz	35 puntu
5. Touring	34 puntu
6. Pasajes	34 puntu
7. Real Union B	30 puntu
8. Trintxerpe	30 puntu
9. Mondragon	28 puntu
10. Mutriku	27 puntu
11. Hondarribia	27 puntu
12. Zestoa	27 puntu
13. Arexabaleta	26 puntu
14. Anaitasuna	25 puntu
15. Orioko	24 puntu
16. Urola	23 puntu
17. Bergara	22 puntu
18. Aloña Mendi	22 puntu
19. Beti Gazte	19 puntu
20. Oartzun	12 puntu

Nesken Liga.
Igoera fasea.
Mondragon-Tolosa 2-2

Lurraldeko 1. Maila.
Astigarragako-Tolosa B 2-1
Saillkapena ▶

1. Martutene	33 puntu
2. Allerru	33 puntu
3. Irun 1902	32 puntu
4. Euskalduna	32 puntu

5. Beti Ona	29 puntu
6. Mariño	29 puntu
7. Behobia	28 puntu
8. Lengokoak	26 puntu
9. Astigarragako	23 puntu
10. Vasconia	22 puntu
11. Ostadar	21 puntu
12. Roteta	19 puntu
13. Gure Txokoa	18 puntu
14. Amara Berri	16 puntu
15. Tolosa B	9 puntu
16. Ordizia	9 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Danena-Gazteak	1-0
Amaroz-Donibane	3-0
Inburre (atsedena)	
Saillkapena (I. multzoa) ▶	
1. Lagun Onak	6 puntu
4. Danena	3 puntu
7. Trintxerpe	0 puntu
Saillkapena (II. multzoa) ▶	
1. Dunboa	6 puntu
7. Inburre	0 puntu
Saillkapena (IV. multzoa) ▶	
1. Lasarte Oria	6 puntu
4. Amaro	3 puntu
7. Donibane	0 puntu

Jubenilen Euskal Liga.
Lagun Onak-Tolosa 0-1

Jubenilen 1. Maila.
Billabona-Ostadar 2-2
Inburre-Sporting 4-1

Kadeteen Euskal Liga.
Tolosa-San Ignacio 3-2

FUTBOL 7

1. Maila.
Irish Guinness-Ibarrako GA 1-2
B. Ignacio-Hond.-Lanbroa Dickens 2-2
Saillkapena ▶

1. Robers	38 puntu
2. Zibbibo Dance Club	36 puntu
3. Perku taberna	31 puntu
4. Bataplan	28 puntu
5. Knauf Dec. Nuñez	25 puntu

6. Bar Ignacio-Hondarribia	25 puntu
7. Zardoya Otis	24 puntu
8. Easo Motor	22 puntu
9. Ibarroko Gazte Asanblada	17 puntu
10. La Kabutzia	17 puntu
11. Kroms	16 puntu
12. Callejo Lanperna	14 puntu
13. Lanbroa Dickens	12 puntu
14. Cesar Rueda Seguros	12 puntu
15. Irish Guinness	11 puntu
16. St. Etienne Cafe Bar	3 puntu

2. Maila A.

Bar Shanti Kirolak-Ekin Fis. Zentr. 3-2
Saillkapena ▶

1. Disco Bar Egur	32 puntu
2. Ekin Fisioterapia Zentroa	32 puntu
3. Ron Cartavio	32 puntu
4. R. Izkiña-Pasaia	29 puntu
5. Bar Shanti Kirolak	28 puntu
6. Pub Egarrri	27 puntu
7. Akelenea sagardotegia	25 puntu
8. Taberna Dani	23 puntu
9. Ikena	19 puntu
10. Fermax Instalaciones GC 17	17 puntu
11. Eibartarra Dance Club	16 puntu
12. Papeleria Tamayo	16 puntu
13. Cabo Rojo-Pyxies	12 puntu
14. Encofrados Iguazuri	12 puntu
15. In the line	11 puntu
16. Nin Climatizacion	7 puntu

JOKO GARBI

**GIPUZKOAKO
TXAPELKETA**
Behar Zana-Zubieta 40-15

PALETA

Oiangui 3-Behar Zana 35-33

XAKEA

GIPUZKOAKO LIGA
Tolosa-Ibarrako Xake Taldea-Eibar 2-2
(M.M. Baroja, R. Etxeberria
eta A. Bustamante)

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Neskek.
Saillkapena ▶
1. Oihana Etxenike
(Anoetako Ikastola) 3 puntu
2. Amaia Ugartemendia
(Laskorain-Tolosa) 2,5 puntu
3. Sara Zabala
(Laskorain-Tolosa) 2 puntu

Infantilak.
Saillkapena ▶
1. Jokin Mendia (Hirukide-Tolosa)

Alebinak.
Saillkapena ▶
1. Aitor Alkorta eta Xabier Corredera
(Jesusen Bihotza-Villabona) 4 puntu
2. Aimar Inbaurrondo
(Samaniago-Tolosa) 3,5 puntu

Benjaminak.
Saillkapena ▶
1. Aitor Villena
(Jesusen Bihotza-Villabona)
2. Gaizka Iruretagoiena
(Pello Errota-Asteasu)
3. Eneko Alkorta
(Jesusen Bihotza-Villabona)

Kadeteak.
Saillkapena ▶
1. Joxe Mujika (Uzturpe ikastola-Ibarra)

ZESTA-PUNTA

EUSKAL HERRIKO
ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteak.
Markina-Beotibar 30-26

Jubenilak.
Berriatua-Beotibar 31-35

UDABERRIA TXAPELKETA

Nagusiak.
Beotibar 1-Beotibar 2 35-28

TOLOSA ▶

Cabanyal-
Hegoalde
partida, bertan
behera

ERREDAKZIOA

Cabanyal Valentzia eta Hegoalde asteburuan jokatzeak ziren partida bertan behera gelditu da, Itziar Aldezabal Hegoaldeko jokariaren amaren heriotza dela eta. Tolosakoek neurketa atzeratzeko eskatu zieten Cabanyal taldekoei, eta Valentziakoek «arazorik jarri gabe eta oneoro laguntzeko prest» agertu ziren, Hegoaldekoen esanetan. Norgehiagoka datorren larunbatean jokatzea adostu dute bi taldeek.

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

Gol zaparrada Berazubín

11-4 irabazi dio 1. B Mailako Laskorainek Amorebietako Beti Arin taldeari

LEIRE MONTES

Gol festa apartaz gozatzeko aukera izan zuten Laskoraingo zaleek, Berazubín. Ikastolakoek 11-4 irabazi zioten Amorebietako Beti Arin-i. Puntu bakar bateko alde zuten bi taldeek saillkapenean, baina garaipen honekin horitxoek urrutzea lortu dute, eta goiko postuetan kokatu dira. «Markagailuari soilik errepertzen badiogu, Laskorainek neurketa erraz irabazi zuela irudituta daiteke; errealitate oso urrun dagoen balorazioa da, ordea», azaldu dute Lasko-

raingo ordezkariek. 5-2 amaitu zen lehen zatia, eta «Domentxe olagarroaren tentakuluengatik ez balitz», partidak beste kolore bat izango zuen. Bigarren zatia kolore horiz margotu zuten ikastolakoek, atzean egindako hobekuntzari eta erasoan erakutsitako eraginkortasunari esker. Horrela, bata bestearen atzetik iritsi ziren golak: 11 etxekoentzat, eta 4 bisitariarentzat. Telletxeak bi gol sartu zituen, eta Saldiasek, Barriolak eta Altunak hiruna. «Futbol partidetan gol kopuru hori egiten duenak baloia etxera era-

man ohi du; baina larunbatean ezinezkoa izan zen, hiru jokalaririk lortu baitzuten *hat-trick* delakoa. Jakin dugunez, izen hori cricket ingelesetik dator. Joku honetan, jokari batek hiru puntu jarraian lortzen dituenean, klubak txapel batekin saritzen du. Honela, txapelaren txantxa bezala itzuli dezakegu esamolde ezagun hau», azaldu du Mikel Altuna jokari horitxoak. Iñaki Egizabal entrenatzailearen, Javier Saldias delegatuaren eta Alonso, Amatriain, Arregi, Barriola, Gil, Domentxe, Yustos, Zubillaga, Telletxea, Ba-

rriola, Saldias eta Altuna jokariaren lorpena da larunbatekoa. Dena den, benetako protagonistak euskara jo dute horitxoek: «Partidako protagonista gure euskara maitea izan genuen, bi taldeen ahotan borroka ibili zen, denon gozamerako».

Ingelesko irakasle bat behar dugu
Tel.: 943 67 00 52

ANOETA-IRURA ▶ KALDEREROAK



Haur mordo batek hartzen du parte kaldereroen desfilean. HITZA

IMANOL GARCIA

Ostiral honetan egingo da Iruira eta Anoetaren artean kalderoaren desfilea. Bi herrietako udalek eta Loatzoko musika eskolak antolatzen du urtero ekitaldia.

Izurako plazatik aterako da konpartsa guztia, zartagiei joaz txaranga lagun duela. Hori 18:30ean izango da eta Iruratik atera eta Anoeta aldera joango dira. Bertan plazara iritsiko dira eta ondoren txokolatada egingo dute. Aipatu behar da haurren parte-hartzeaz aparte, Anoetako herritar batzuk ateratzen direla, asto eta karrozarekin, kalejirari giro alai jarritz.

Ostiralerako prestatzeko, gaur arratsaldean, 18:00etan entsegua egingo da zartagiei nola jo behar zaien jakiteko Loatzoko musika eskolako gidaritzapean. Anoetako ikastolan izango da hitzordua eta txaranga ere bertan izango da zuzenean musika entzuteko.

Kaldereroak iritsiko dira ostiralean

Anoetako Ikastolan entsegua egingo da gaur arratsaldeko 18:00etan



Herritar batzuk asto eta karrozarekin ateratzen dira. HITZA

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Alkiza. Txaleta lursailarekin. Kapribox. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Gazteentzako ezinhobea. Kapribox zaharberriua. 70 m². Eguzkitua. Trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 85 m². Egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko. 34.500.000 pezeta (negoziagarriak). Etxesagasti. 943 696856.

Tolosa. 70 m². Egongela, sukaldea, 2 gela eta bainugela. Zaharberriua. 39.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 90 m². Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Egoera ezin hobea. Trastelekua. Garajea 48.000.000

pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Eraiki berria. 3 logelako pisu ederra. Trastelekua. Garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Pisu altua igogailuarekin. Bi logela. Sartzeko. Trastelekua. 34.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Villa adosatua. Egongela, sukaldea, 4 logela eta 3 bainugela. Garajea. Txokoa. Terraza eta lorategia. Apartekoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Pisu polita. Eraiki berria. 3 logela. Kanpoaldera. Apartekoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Behar dira. Eskaera handiagatik: landa lursailak, hirigintzakokak, pisuak, villak, baserriak... Salgai edo alokairuan. Etxesagasti. 943 69 68 56.

ANOETA ▶

Dantza-sokaren azken entseguak Edurkan

Larunbata honetan egingo da dantza-soka Anoetako baserri eta kaleetan zehar. Bertan parte hartu behar dutenek azken entseguak burutuko dituzte astean zehar. Gaur egingo dute lehenengo entsegua, 19:30ean, Edurkan. Hurrengoa etzi izango da, 20:30ean eta azkena ostiralean izango da, 19:30ean.

IRURA ▶

Autobusa talde laranjaren aurkezpenerako

Pefa Enara Euskaltel-Euskadik autobusa antolatzen du ostegunean Euskaltel-Euskadik txirridulari taldeak Hondarribiko Hondartza kiroldegian egingo duen aurkezpenerako. Interesatuak Enara taberna eman behar dute izena. Aurkezpena 19:30ean izango da eta autobusa 17:45ean aterako da.

AMASA-VILLABONA ▶



Joko garbiko pilotariak eta epailea partida hasi aurretik. HITZA

Hirutik bi garaipen, Behar-Zanakoek

Pasa den asteburuan Behar-Zana elkarteak partidak jokatu zituzte Amasako pilotalekuan. Joko garbi modalitatean, Gipuzkoako Txapelketan, Behar-Zana 02 taldeak garaipena lortu zuen Zubieta 03 taldearen aurka—argazkian ezkerretik hasita, Behar-Zanako Xabier Mitxelena eta Igor Alejo—. Alde handia atera zioten, 40 eta 15eko emaitza lortuz. Udaberri txapelketan, Paletan galdu egin zuten Behar-Zanakoek 33-35 Oiangui 03ren kontra. Eskuzko modalitatean garaipena lortu zuen elkarte billabonatarak, Lazkaori 22 eta 19 irabaziz.

VILLABONA ▶

Aizkardiren elurretara irteera bertan behera

Aizkardi Mendi Elkarteak jakinarazi du datorren igandeko, hilak 30, antolatuta zegoen irteera bertan behera geratu dela. Mendi irteera elurretara joateko zen, Somportera, hain zuzen,

ZIZURKIL ▶

Korrika Batzordearen bilera gaur

Korrika Batzordeak bilera egingo du gaur Atxulondo Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:30ean izango da eta antolatzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

VILLABONA ▶

Izaskun Zubeldia, Euskadiko txapeldun

Izaskun Zubeldia billabonatarak lehenengo postua lortu zuen nagusien mailan Amurrion jokaturako Kros Motzeko Euskadiko Txapelketan, 16 minutu eta 09 segunduko denborarekin. Emakume guztien artean zortzigarren postua lortu zuen Tolosa C.F.ko atletak, irabazlearengandik minutu eta erdira.

LEITZA ▶ IHOTEAK



Bazkaria. Eguerdietean kalean gora eta behera xahututako indarrak berreskeratuz, otordua egin zuten Erleta eskolako jantokian. Pertsonaia eta kolorez beteta ageri zen eta dantzarako aukera ere bazen. J. ASTIBIA



Euskal Jai. Zazpi guri atera ziren igandean kalera eta beren antzerkitxoa egin. Festa egiteaz gain, gazte hauena kasu, aldarrikapenatarako ere baliatu zuten aukera. J. ASTIBIA



Turistak. Taldeka atxotzeko ohitura ere bada. Irudian, ihoteak zirela jakinda akaso, turista talde bat ere azaldu zen herrira. J. ASTIBIA



Jolas parkea. Atzo pilotalekua jolas parke bihurtu zen. Gaztelu puzkarri ia-ia erraldoiez beteta zegoen eta umeak saltoka eta poteka ibili ziren. J. ASTIBIA



Eskelariak. Goizean abiatu eta, baserrietara joan ziren eskelariak eta baserriarrek egin zuten festa. Edizioa isterako, elurra goian-behian ari zuten eta inkomunikatuta edo, oraindik ez ziren itzuliak. J. ASTIBIA

Elurra mara-mara, umorea barra-barra

Negu biziko eguraldia izan arren, baserrietako beroari esker, ez du batere meilarik eragin atxoengan

JAIONE ASTIBIA

Ihoteak hasi badira hasi, neguko hotza agertu da, baina ez du jendearen umorea hozteko inolako ahalmenik erakutsi, izan ere ihoteetako lehendabiziko bi egun hauetan atxoak kaleetan gora eta behera ibili dira, beren antzerkitxoak eginez eta erakutsiz.

Herenegun egun osoko festa izan zen. Eguerdian atera ziren atxoak atarira eta egun osoko ikuskizun bilakatu: *Harley* eta

guzti, larrukiz jantzitako motozaleak, Simsondarrak, txotsizaleak, zaldizkoak, turistak... *Hartzaindegia*, *Leitzako Garden*-eko burrukariak, safaria, poteo-biskuterra, ileapaindegi sofistikatuak, txarlestonzaleak, Euskal jai pilotalekua... irudikatzen zituzten zazpi guri ere atera ziren... Kale nagusia hauen guztien ibiliarekin jantzi zen eta bazterretan begira ere jendea bazen, beste urtetan baino gutxiago akaso. Izan ere aterizkia egin bazuen

ere, bazkalordurako euriak eraso zion, eta ez zuen gehiago atertu. Baina eguraldi busti horrek ez zituen atxoak izutu eta Erleta eskolako jantokian bazkaria egin ondoren, berriz ere kalera atera eta festan jarraitu zuten. Incansables txarangarekin aurrena, eta Karrapeko musika saioan beste batzuk, edo herriko tabernetan bestela.

Eta atzo berriz, baserrietara. Horixe izaten da eta, astelehen ihoteko festa. Goizean Labetxeko ataritik eskelariak ateratzen

dira eta Gorritaran eta Arkixkil talde batek eta Sakulu eta Erreka beste batek, egun osoko ibilialdia egiten dute baserri baserri. Gero gainera, taldea hauek ere bitan egiten dira. Horrela bada, 90-100 bat lagun inguru atera ziren goizean. Gorritaran-Arkixkil aldera gazteenak joan ziren, txaranga lagunduta, hala egiten da, eta Erreka-Sakulura zaharrentsuenak, txistulariekin—eskelariei urteak pasa ahala Erreka aldera joaten hasten dira eta berriz ere txanda gazteek Gorritaranerantz—.

Eta eskelariarekin atzo *jito* familia bat ere ibili zen Gorritaranen, behorak tiratutako gurdia, atzetik astoa eta zakurra lotuta zituztela. Eta Erreka aldean berriz, poxpolinak ibili ziren. Guztiak baserriarrek eskaini zizkieten jaki eta edariekin bapo, bakoitzean dantzatu eta suziria botatz, elurraren hotzak bota zituzten eta berriz ere, Plazaolan

bat egin eta elkarrekin itzuliko ziren herrira, elurrak bideak itxi eta han gelditu beharrek ez baziren behinik behin.

Bitartean, haien etxafuegoen ezta edo entzunez, umeak ere jauzika eta jolasean ibili ziren arratsaldean, pilotalekuan izan zuten jolas parkean, hauek ere izerdi patsetan batzuk, gurasoak zain zituztelarik.

SAGASTI JATETXEA
Ihoteak ongi pasa!
Elbarren, 98 • LEITZA
Tel.: 948 610 637

ALEGIA ▶ AZPIEGITURAK



San Joan kalea oinezko bihur daiteke otsaileko galdeketa emaitzaren arabera. NOELIA LATABURU

San Joan kalea oinezko izateko herri galdeketa egingo da

Otsailaren 12an eta 13an burutuko da kontsulta San Joan kaleko eta Bideberrietako biztanleen artean

NOELIA LATABURU

San Joan kaleko etorkizuna herri kontsulta bitartez erabakiko da azkenik. Kalea oinezko bihurtu edo ez, horixe izango da San Joan kaleko eta bideberrietako alegiarrek otsailaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 20:30era, eta 13an, 10:30etik 13:30era, erantzun beharko duten galdera, herriko plazan jarriko den mahaira gerturatu. Ondoren, kontaketa publi-

koa egingo da. Aurreko egunean ere botoa eman ahal izango da udaletxean.

Aurreko asteazkenean Alegiako Parte-Hartze Batzordeak kontsultaren nondik norakoak zehaztu zituen. Gaur eta bihar informazioa zabalduko zaie biztanleei, posta bidez zein herriko erakuslehoetan kartel-txoak jarriz. Asteburu honetan, berriz, plazan panelak, pankartak eta megafoniak izango dira. Irtizia emateko epea ere zabal-

duko du Batzordeak, otsailaren 1a eta 2a bitarte.

Xehetasunak lotzeke

Bestalde, bozketa sistema, kanpaina bera eta iritziak Patxi Renobales, Felix Irazustabarrena eta Iñigo Irazustabarrenaren esku daude, hurrenez hurren. Oraindik, urnen prestaketa, sor daitezkeen zalantzak argitu eta kanpaina materiala, bestekak beste, erabat lotzea falta dira.

ALEGIA ▶ EPAIKETA

Lau urteko zigorra eskatu dute hildakoaren senideek

Gipuzkoako Auzitegiko Fiskaltzak, berriz, bi urteko zigorra eskatu du ertzainarentzat

N. LATABURU

2003. urteko abenduan ertzain batek Alegian hil zuen gizonaren familiarrak ez datoz Gipuzkoako Auzitegiko Fiskaltzat eskatzen duen zigorrarekin bat. Honek bi urteko kartzela zigorra eskatu dizkio «hilketa ez zuhurra» egotziz, eta hildakoaren guraso eta bikotekideari 115.855 euro ordaintzea.

Akusazio partikularra egiten ari diren senideek, aldiz, lau urteko kartzela zigorra eskatu dute Jose Atanes beasaindarrak hil zuen ertzainarentzat, «hilketa ez zuhur» delituaren ondorioz eska daitezkeen zigorrak gogorrena, hain zuzen ere. Honetaz gain,

600.000 euro eskatzen dituzte bere neskalagunarentzat, 300.000 euro gurasoentzat eta beste 60.000 anaiarentzat.

Auzitegiko Fiskaltzak hildakoak R.B.D. ertzainarekin liskarra mantendu zuela argudiatu du, eta hori dela eta, ez du eskatu zigorrak gogorrena. Baina Jose Atanes biktimaren bikotea zena bertan izan zen hilketaren egunean eta bere esanetan, «ertzaina zuzenean hurbildu zen eta besterik gabe tirokatu zuen Jose».

Gertaera 2003. urteko abenduaren 19an izan zen Alegian, hildakoa eta bere lagun batzuk Andoaindik etxera buelta zihozela. Ertzaina, berriz, trafikoa zuzentzen ari zen izandako istripu batean.

ALTZO ▶

Gaur 'Hamaika koloretan dantzan' Ertotxen

Gaur Altzoko Ertotxen antzerki musikala eskainiko da. Zenbat Gara Elkarrekin *hamaika koloretan dantzan* txontxongilo emanaldia emango du 17:00etan. Antzerki musikala honen bitartez arrazakeriaren aurkako eta integrazioaren aldeko mezu argia zabaldu nahi da abestien eta dantzen bitartez. Ikuskizuna herriko txiki eta gaztetxoek zuzenduta dago, gehienbat.

ALEGIA ▶

Gaur da kuota ordaintzeko azken eguna

Gaur amaitzen da Alegiako jubilatuen kuota ordaintzeko epea. Aipatu kuota bost eurokoa izango da eta hau ematen ez dutenek ez dute Gabonsaririk jasoko. Aurreko urteko azken egunean egin zen eguberrietako saskiaren zozketan 105 zenbakia izan zen sariduna. Irabazleak hila bete honen bukaera arteko epea dauka saria jasotzeko, baina aurretik kuota ordaindua izan beharko du.

hitza

txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY
KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEABURU ▶

Finalerdietan
da Arrospide
bikotekako
txapelketan

I. TERRADILLOS

Anjel Arrospidek eta Joxe Ugarteburuk osatzen duen bikoteak igandean Oionen garaipena lortu eta gero finalerdietan jokatzeko sailkatu dira. Puntu gehien lortu zuen bikotea izan zen, Peñagarikano eta Txapartegiren aurretik, eta sei aldiz txapela jantzi duen Leaburukoaren lana ezinbestekoa izan zen garaipena lortzeko. Orain aurtengo txapeladunak izango dituzte aurrez aurre, Larretxea eta Míndegia.



Zubi berria inauguratu zuten igandean

LIZARTZA ▶ Txistulari eta dantzariekin, ospakizunean egin zuten Lizartzako zubi berriaren inaugurazioa igande eguerdian. Axurdario herri plataformako kide eta aurreko legealdiko alkate izandako Jose Antonio Míntegiak hartu zuten irekiera eta hitzaldia emateko ardura. «Bi urte igaro dira eta Udalean daudenek ez dute ezer jakin nahi izan, herria utzita dute», azaldu zuen. Bestalde, Axurdario plataformak herriaren alde lanean jarraituko duela adierazi zuen Míntegiak. HITZA

IBARRA ▶ KULTURA

Uzturpe ikastolako V. Kultur
Asteak aurrera darrai

Hitzaldiak, proiektioak eta mendi irteerak antolatu dituzte igandea bitarte

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den astean hasi eta igandearte luzatuko da aurtengo Uzturpe ikastolak antolatutako V. Kultur Astea.

Atzo Parekatzen elkarteak eskainitako hitzaldian neska mutilak berdintasunean nola hezi azaldu bazuten, gaur mendebaldeko Feng Shui-aren aditua den Regina Heliot-ek Etxeko Feng Shui-az hitz egingo du; kolorea, kokapena eta elementuen arteko oreka dihardu hain zuzen ere, txinar kulturatik datorren eta mendeetan zehar garatu den arte honek.

Euskararen inguruan izango dahirrengo hitzaldia eta Kike Amonarriz izango da hizlaria; euskararen kalitatearen inguruan eta seme-alaben hizkera hobetzeko zer egin daitekeen aztertuko du Amonarrizek.

Ostegunean *Ezkontzerikan ez dugu espero*, Ibarako he-



Haurrek ederki pasatu zuten larunbateko Haur Festan. JAIONA ASTIBIA

rritarren kale antzerkia ikusteko aukera izango, bi saiotan.

Amaitzeko, igandean mendi irteera antolatu dute Belokira.

Aipaturiko hitzaldiak eta proiektioak Ibarako Benito Izagirre kultur etxean izango dira ikusgai.

EGITARAUA ▶

GAUR

18:30. Etxeko Feng Shui-az hitzaldia Regina Heliot-en eskutik.

BIHAR

19:30. *Es que, guk horrela hitz egiten dugu* hitzaldia Kike Amonarriz soziolinguistaren eskutik.

ETZI

18:00 eta 20:00. *Ezkontzerikan ez dugu espero* Ibarako herritarren kale antzerkiaren proiektioa.

IGANDEA

Mendi irteera. Beloki tontorra.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, M. I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 67 06 48

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 681 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Monitoreo. Asteasuko kiroldegia aerobik-eko monitore bat behar du. Telefona: 943 69 34 00. 18:00etatik 21:00etara.

Irakasleak. Irakasleak behar ditugu klase partikularrek emateko. Ikasgai

eta maila guztietarako. Curriculum Vitae-a bidali helbide honetara: donostia@acadomia.es.

Hezitzailea. Artikutzako Natur Eskolan lan egiteko hezitzaile bat behar da. Ingurumen heziketa ezagutu edo/eta esperientzia izatea

eta E.G.A. titulua edukitzea estimatuko da. Ezinbestekoa: gida baimena, autoa eta informatikako oinarriko ezagutza. Interesatuak Curriculum Vitae-a ondorengo helbidera bidali (otsailak 3a baino lehen): artikutzanatura@begira.com.

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da goizez, 5 orduz, etxeko lanak egiteko. Deitu 669 21 33 37 zenbakira **14:00etatik 21:00etara.**
Zaintzailea. Neska edo andre bat behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

Deitu 943 67 58 95 zenbakira **19:00etatik 21:00etara.**

SALGAI

Etxebizitza. Alegiako Larraitz auzoan etxebizitza salgai. Deitu 680 570 952 zenbakira.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 25a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesle, Adura, Abotzur, Aegle, Alkiza, Altoa, Amerieta, Anoeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Itura, Larramendi, Leizola, Lizaso, Oñena, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
bestenik: Leitzaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Saila

943
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

6

hotzena

4

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez

ELURRA
ARALAREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. Zenbat Gara Elkarreak *Hamaika Koloretan dantzan* txontxongilo emanaldia eskainiko du Ertobxen 17:00etan.

Anoeta. Dantza-sokaren entsegua 19:30ean Edurkan **Berrobi.** 7-13 urtekoentzat Xake ikastaroa antolatuko du Udalak liburategian gaur 18:30etik 19:30era.

Ibarra. Mendebaldeko Feng Shui-an aditua den Regine Helioterren hitzaldia Etxeko Feng Shui-az 18:30ean Kultur Etxean. Uzurpe Ikastolaren Kultur Astean. **Tolosa.** Gabirel Ezkurdiak *Euskal Herria eta Europako konstituzioa* hitzaldia emango du udaletxean 20:00etan. Orreaga taldeak antolatuta.

INAUTERIAK

Anoeta-Irura. Datorren ostiralean Iruratik Anoetara egingo den kaldereroen entsegua Anoetako Ikastolan 18:00etan.

Leitza. 9:30ak aldera Erasote aldeko baserrietara eskea. 11:30ean Eretara Incansables-en bisitaldia. 14:30ean Aurrera elkartean bazkaria. 15:15ean hasita, ikasle-irakasle-gurasoen kalejira. Ondoren txokolatada plazan eta buruhandiak. 19:00etatik 21:00etara eta 23:30etik 02:00etara Gaubelarekin dantzaldia. 21:30ean Torrean sagardotegiko afaria.

Tolosa. Zaldunita bezperako danborradaren entsegua Kultur Etxean 20:00etan.

KORRIKA 14

Tolosa. Eskualde mailako bilera herrietako arduradun edo ordezkariak berri emateko eta herrietan batzordeak sortzeko. Bihar 20:30ean Tolosako Arramele-AEK euskaltegian. **Zizurkil.** Korrika Batzordeak bilera egingo du Kultur Etxean 19:30ean

ZINEMA

Tolosa. *Alejandro Magno.* Leidorren 19:15ean eta 22:30ean. Gaur Ikuslearen Eguna.

Bi leitzar aurrez aurre

TOLOSA ▶ Oinatz Bengoetxeak eta Abel Barriolak Beotibarren jokatu zuten atzo binakako txapelketako partida; Eugi-Barriolak erraz irabazi zuten: 22-12



Abel Barriola —ezkerrean— eta Oinatz Bengoetxea leitzarrak, atzo Beotibarren, partidua hasi aurretik. J. SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Eguraldi kaxkarra, ikusle multzo kaxkarra eta partidua kaxkarra. Halakoxea izan zen atzo arratsaldekoa Tolosako Beotibar pilotalekuan. Bi pilotari leitzar ziren protagonista, aurrez aurre: Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea.

Binakako Esku Pilota Txapelketako lehen faseko azken partidua zen. Titin-Barriola Bengoetxea VI.a-Belokiren aurka ziren jokatzekoak, baina bi leitzarrak bakarrik mantendu ziren hasierako kartelean. Titin errioxarra eta Beloki nafarra lesionatuta zeuden eta bere ordezu Eugi nafarra eta Peñagari-kano beizamarra jarri zituzten antolatzaileek.

Bengoetxea VI.a eta Peñagari-kano aurreratu ziren 0-1, baina gero Eugik eta Barriolak zortzi tanto jarraian egin eta handik aurrera aurretik mantendu ziren, erraz irabaztea lortu arte. Markagailuan 8-1, 13-12, 15-8 eta 19-10 joan ziren, azkenean 22-12 gelditzeko. Ordubete eskas —56 minutu— behar izan zuten partidua amaitzeko.

Eguraldi txarra zela eta, jende gutxi bildu zen Beotibar pilotalekuan. Kanpoan hotza eta denak elurraren zain, eta barruan ere bero handirik ez, kaxtan gertatutakoak ere ez baitzuen giroa berotzea lortu. Norbait aipatzekotan, Eugi aipatu behar da. Bera izan zen onena atzoko partiduko lau pilotarien artean.

Lehen fasea amaituta, final-laurdenak hasiko dira. Xala eta Lasa izango dituzte aurkari Titinek eta Barriolak.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN
Iker (Ibarra).

Gaur 2 urte.
Zorionak etekoan partetik.



URTE ASKOAN
Selene Sobrado Tolosa

(Tolosa). Zure guraso, amona eta ahizparen partetik, atzoko partez.



URTE ASKOAN
Bartolome Tolosa. Zorionak aitona.

Zure hiru biloba Ander, Oihana eta Asier eta familia guztiaren partetik musu handi bat.



URTE ASKOAN
Leire Jauregi (Berrobi).

Gaur 6 urte. Aitaboa eta amaboren partetik.



ANIMO AGURRA

Urtarrilaren 24tik trapeoan 10 egunetan. Zurekin gaude Oskar. Muxuak. Jo ta ke! Amenabarro sendia